



*Sugaar Taldeko ikasleak*

## **Sugaar taldea sortu da, euskara eta euskal kultura sustatzeko**

Sugaar Euskal Kultur Mintegia talde berri bat da, Deustuko Unibertsitatean euskara eta euskal kultura bultzatzeko, taldea osatzen duten ikasleen proposamenen bidez. Topagunea ere izan nahi du Unibertsitateko euskaldun guztientzat. Joan den martxoaren 31n izan zen eurek antolatutako lehenengo ekimena: «Txikitasunaren handitasuna» antzerki ekitaldia, euskararen bizitzari buruzko metafora bat, gure hizkuntzaz eta unibertsitateaz hausnartzeko.